

## KANTULAGUN

Urte honetan martxan jarri dugun egitasmoari ere iritsi zaio kurtso amaiera. Lau saio egin eta gero, maiatzaren 28an, amaiera emango diogu ikasturteari Kantu Bazkari eder batekin. Hitzordua 13:30ean da Santa Ana plazan; lehendabizi, kantuan hasi eta Durangoko kaleak kantuan igaro eta gero, Plateruenan bazkalitzen elkartuko gara kantulagunok.

Bazkarirako txartelak salgai daude Plateruenan bertan. 20€ nagusiak eta 11€ umeak.



### // Miren Abasolo

- Zer da Kantulagun? Edade desberdinetako kantuzale koadrila bat.

- Zergatik hilero - hilero? Ondo pasatzen dugulako kantuan, irrintzika lasaituz eta barre batzuk egiten. //

### // Maite Agirre

- Zergatik Kantulagun? Beste herri batzuetan, Iruñean, Zarautzen...kalean abesten zutela entzunda nuen eta ideia polita iruditzen zitzaidan. Proiektua Durangon martxan jarriko zela jakitean, ez nuen zalantzarik izan.

- Ze iruditu zaizu gerora? Gustura joaten naiz. Zabala etorri zenekoa, adibidez, asko gustatu zitzaidan. Kantulagunak kalez-kale ibiltzea gustatuko litzaidake. //

### // Fernan Bildosola

- Zelan ba Zaldibartik Durangora Kantulagunera? Anboton ikusi genuen iragarki baten eta ideia polita zela iritzita izena eman genuen. Gustuko dugu Euskal kultura eta giro horretan ibiltzea.

- Zenbat elkartzen zarete? 100 pertsona inguru elkartzen gara hileko azken ostegunean Plateruenan. //

### // Beñat Aiarza

- Zer dela eta Kantulagunen? Gaur egun kanta ingeles eta erdaldunak hainbeste entzuten ditugun aroan, euskal kanten transmisioa lantzea garrantzitsua eta polita izan da.

- Datorren ikasturterako proposamen berririk? Jende gaztea erakartzea lortu beharko genuke. //

## POLIKIROLDEGIKO IKASTAROAK EUSKARAZ

Urtebete igaro da Udalak bertako langileak euskaraz trebatzeko Berbaro kontratatu zuela eta, dagoeneko, bideratu ditugu hainbat ekiniza. Besteak beste, alderdi politiko eta atal buruekin adostu dugu langileei euskaraz berreskuratze ikastaroak emango zaizkiela. Ondoren, euskaraz lan egiten hasteko eta herritarrei zerbitzua euskaraz eskaintzeko. Hala ere, euskaraz normalizatzeko herritarrok eskatu egin behar diogu Udalari bere zerbitzuak euskaraz ere nahi ditugula. Berbarotik bagabiltza hautsak arrotzen; esate baterako, polikiroldegiko ikastaroak euskaraz eskaintzeko trabak gairatu nahi ditugu. Horren harira, inkesta bat egin dugu Pilates ikastaroko erabiltzaileekin, hona emaitzak:

T	izena emanda	euskaraz	gastelaniaz	berdin zait	guztira	erantzun gabe
1	7	1	1	5	7	0
2	8	2	2	2	6	2
3	11	2	6	3	11	0
4	15	3	1	11	15	0
5	12	2	1	6	9	3
6	15	3	8	4	15	0
7	14	1	9	4	14	0
8	9	1	4	1	6	3

Emaitza horiek ikusita euskarazko taldeak sortzen lagunduko diogu Durango Kirolaki. Horrela, bere zerbitzuen kalitatea ere igo egingo duela erakutsiko diogu, erabiltzaile euskaldunak asetuko baititu. Gure helburua, datorren ikasturterako gainontzeko ikastaroekin ariketa bera egitea da. Baita, nola ez, Udaleko gainontzeko zerbitzuetan: HAZ, Bulego Teknikoa, Udaltzaingoa, Biblioteka, San Agustin Kultur Gunea...

Baina, lehen esan bezala, herritarrek eskatu ezik nekez lortuko dugu zerbitzuak euskaraz eskaintzea Udalak; euskaraz normalizatzea. Beraz, ekin diezaiozun denon artean: ESKATU euskarazko zerbitzua!

# UDALEKUAK

Beldur gaua, zikin jolasak, "Zenbat apostu" lehiaketa, "Zu zera" abestia karaokean, piraguak, irteera bereziak, "Bandera" jolasa, ur-jolasak, "Furor" lehiaketa, "Umore txinatarrak", laburmetriak, "txouak", Ping-pong txapelketa, bertso saiok, tailerrak, igerilekuan bainuak, txantxa jolasak, diskoteka, jaialdiak, mozorroak ... zenbat eta zenbat ekintza, zenbat eta zenbat bizipen udalekuetan!!

Eta zein aukeratuko zenuke? galderari erantzuteko gai ez diren ume eta gazteak ditugu, aurten ere, abentura horiek bizitzeko prest (bat aukeratzea hain da zaila!). 8-12 urte bitartekoak Aizkoara joango dira Hegoa aterpetxera eta 12-16 urte bitartekoak, aldiz, Iparraldetik prestatu dugun udaleku ibiltari-finkora. 12 egunez ingurune paregabeak ezagutuko dituzte Nafarroan, Lapurdin eta Gipuzkoan; galdu ezineko aukera izango dute lagunartean eta giro paregabean egoteko.

Beste batzuek, beharbada, udaldia herrian igarotzea nahiago dute eta horretarako antolatu ditugu Udan Olgetan herri kanpamenduak 3-10 urte bitartekoentzat. Baina guztiek dute helburu bera: euskaraz ondo pasatzea!! Edo baten batek esaten duen bezala: "boooooonbaaaaaa"!!!

Lanean ari gara gogotsu eta baditugu milaka ideia ere aurtengo udalekuetarako. Ekintza arrakastatsuek mantenduko ditugu ume eta gazteen gozamenerako eta, nola ez, beste berri batzuk ere baditugu pentsatuak; beharbada ezustekoren bat ere izango dute tarteka!! Gonbidatu bereziren bat, bisitaldi interesgarriren bat, ekintza bereziak... Orain ez dugu argibide gehiagorik emango eta bukatzerakoan ia zer kontatzen diguten udalekuetan parte hartutakoek. Eta datorren ikasturtean zehar ere, ezinbestean, jarraipena emango diogu uda sasoi horretan sortutako giroari; irteeratxoak, asteburu-pasak, gin-kanak, ikastaroak, tailerrak, "Olgetan ludoteka" antzokian... eta beste hainbat ekintza eta proiektu ume eta gazteekin burutuko ditugunak.

Uda garaia heltzeko ikaragarritzko gogoak dugu eta.... "boooooonbaaaaa"!!!



# ZILAR ASTEA

Badira bi hiru urte plateruok herri-kulturgintza sustatzeko lanari buruz gabiltzala berbaz. Herri kulturgintza diogunean Zilar Astea lako proposamenei buruz gabilta: herritarren artean antolatu, herritarrek sortu eta herritarrei eskainitako kultur eskaintzetaz.

Film labur lehiaketa, berbaldiak, mahai ingurua, ikuskaria, dokumentala, umeentzako jolasak... Ehun durangar baino gehiago antolakuntzan eta sorkuntzan; mila eta bostehun durangarretik gora ekitaldiak jarraitzen; beste euskal herri batzuetako hainbat kulturgile bidelagun...

Astean zehar Plateruenan egiten dugun Olgetan ludoteka ere, Zilar Asteko egitarauan sartu dugu aurten: 80ko Olgetan. Orduko jolasen erakusketa prestatu genuen eta garaiko jolasetara jolasteko aukera eman genuen.

Gainera Frai Juan de Zumarraga ikastetxean, beraien aste kulturala 80ko hamarkadara bideratu dute aurten eta, ondorioz, hamarkada horren amaieran sortutako gure elkartearen inguruko gin-kana prestatzea eskatu ziguten DBH 1-koentzat. Hala egin genuen Berbaro Expressekin. Durangotik zehar ibili ziren 100 gazte inguru koloretako zapia buruan zutela hainbat gairi buruzko galdera eta frogak betetzen. Esate baterako: 80. hamarkada Durangon, Berbaroren sorrera, elkartearen egiten ditugun lanak...

Zilar Asteak lortu du bere egitekoa. Aste tematiko parte hartzailea! Eskerrik asko guztioi!

## GUREAN EUSKARAZ

Melissa eta Naika Diatta bi ahizpa senegaldar dira. Bigarren urtea da "Gurean euskaraz" proiektuan parte hartzen dutena, hona hemen beraien bizipenak beraien idatzita.



*Kaixo lagunok! Ni Melissa izena dut eta 11 urteko neska naiz. Orain leku interesgarri bat mintzatuko natzaizue, Berbaro. Niretzako oso leku interesgarri eta euskara ikasteko oso leku positiboa da. Bueno behin hau esanez goaz andereñoekin. Guretzako oso atseginak dira. Diñot guretzat joaten garenok. Oso wapak dira eta ni andereño Hauek betirako nahi ditut. Bueno orain egiten ditugun ekintzak mintzatuko natzaizue. Ekintza hauek ona dira euskara ikasteko. Horrexegaitik hona etortzea euskaraz hitz egiteko da eta ondo pasatzeko ere, fitxak egin, jolastu, etxeko lanak egin... Eta azkenik lekua. Leku hau oso lasaia da eta niri ura gustatzen zaidanez, gustatzen zait erreka ondoan egotea. Eta zorionez Pinondo erreka ondoan dago.*

**Melissa Diatta**

*Kaixo lagunok! Nik Naika naiz 10 urte ditut eta Jesuitetan ikasten dut. Bueno orain leku interesgarri bat mintzatuko natzaizue, Berbaro. Berbaro leku oso interesgarria da, aukera asko dituzu euskara ikasteko, adibidez: andereñoekin euskeraz hitz egiten, jokoetan parte hartzen... Nik uste dut leku hau oso lasaia da eta gainera andereñoak oso onak eta dibertigarriak dira. Orregaitik ni joaten naiz, ze bestela ez nintzen joango inoiz.*

**Naika Diatta**



## WALDHAUS GARAGARDO-DASTATZE TAILERRA

BERBARO elkarteak eta Berbaro txokoak, Waldhaus garagardo - dastatze tailerra antolatu dute. Tailerra **8 eguenak** lantaldekoek emango dute.

Waldhaus garagardo bakoitzaren elaborazioa eta garagardotegiaren gaineko informazioa jaso ostean, garagardoak aurkeztu eta dastatuko dira.

Dastaketaz gain "afaria" ere egongo da; saltxitak, chucrout eta entsalada egongo da jateko. Beraz afaldu barik etortzea gomendatzen dute antolatzaileek.

**Eguna:** ekainak 2, osteguna

**Ordua:** 19:30ean

**Prezioa:** 15€ Berbaroko bazkideek eta 18€ gainontzekoek

Plaza kopurua mugatua da, 20 LAGUN. Izena emateko azken eguna maiatzak 25a.



# KORRIKA

Bi urtetik, bi urtera... badator korrika! Etorri eta joan! Azkar pasatzen da baina ekartzen duena ez da gutxi! Aurten Durangotik eta inguruetatik goizaldeko ordu txikitari pasatu da baina Berbarokook, pozarren, han izan gara; Plateruena eta Anbotokoekin batera testigua eskuetan dugula.

Aurreko egunean motorrak berotu genituen Korrika Txikiarekin. Azken Korriketan bezala antolaketa lanetan ibili ginen; hala ere, oraingoan EHE eta Zapaburukoen laguntza izan dugu. Korrika Txikiaren amaiera ederra izan zen, ehunka ume erakustazokan abesten, margozten, txapak egiten...

Bi urte barru berriro itzuliko da Korrika gurera, hala ere, bitartean jarrai dezagun euskaraz egiten, izan gaitzan EUSKALAKARIAK!



Laguntzaileak:



Biskailo Foru Aldundia  
Kultura Sela



DURANGO  
Udala - Ayuntamiento